

# Anhitz, euskarazko hizkuntza-teknologietan ikertzeko

**Aztiria Urtaran, Josu**  
Hizkuntza Zerbitzuak


**Martxan da dagoeneko Anhitz proiektua. Euskarazko hizkuntza-teknologietan ikerketa eta garapena sustatzeko asmoz jaio den ikerketa-proiektu estrategikoa da, eta bost partzuer elkartu dira xede horretarako, Elhuyar Fundazioa tarteko.**

JAKINTZA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN, GERO ETA GARRANTZI HANDIAGOA DU ELEANIZ-TASUNAK. Eta hizkuntza-teknologiek zeresan handia dute horretarako erabili behar diren tresnen garapenean.

Horrelako tresnak, dena den, ingelesez funtzionatzeko daude eginak batez ere; gainerako hizkuntza-komunitateek —txikiak, batez ere— ahalegin berezia egin behar dute horretara iristeko. Euskarak, kasu.

Bestalde, pertsonen eta makinaren arteko komunikazioa hizkuntza naturalean izateaz gain, modu intuitibo eta atseginean egitea da xedea. Desafio zientifiko-teknologikoa handia da hori lortzea, lengoaiaren alderdi guztiak integratzea eskatzen baitu horrek: ahotsa, testua eta irudia.

Desafio horri ekiteko sortua da AnHitz proiektua, helburu honekin: euskarazko hizkuntza-teknologietan ikerketa eta



garapena sustatzea, pertsonen eta gailuen arteko interakzioa eta jakintzaren kudeaketa naturala, intuitiboa eta atsegina izan dadin. Hona hemen proiektuan zehaztutako ikerketa-ildoak:

- Testu bidezko komunikazioa: lengoaiaren naturalaren ulermena, hizkuntzaren sorkuntza eta informazioaren erauzketa aurreratua.
- Jakintza kudeatzeko sistemen garapena: galdera-erantzuneko sistemak, informazio-bilaketa eta informazioaren erauzketa aurreratua.
- Elkarrizketa-sistemak: emozioen ezagutza eta sorkuntza, elkarrizketa-erregulak eta ahotsaren integrazioa gailu aurreratuetan.
- Irudi bidezko komunikazioa erabilzailearekin: ezpainen mugimendua, minusbaliatuentzako hizkuntza.
- Itzulpen automatikoa: erabilzailearekin eta jakintzaren kudeaketarekin lotutako interakzio-moduluetan aplikagarria.

Ikerketa-ildoez gain, bestelako helburu orokorrak ere baditu AnHitz proiektuak. Batetik, hizkuntzaren industria garatu eta egonkortzeko urrats erabakigarriak ematea, eta, hala, ikerketen emaitza eta gailuak merkatuaren beharretara egokitu eta produktuen komertzializazioa bideragarri bihurtzea. Bestetik, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzea eta dagoeneko sortuta daudenen egonkortasuna lortzea. Azkenik, jakintza sortzea, ildo estrategikoa horretan I+G+Bko erronka eta helburuei autonomiaz erantzuteko ikerketa-talde sendoa prestatuz.

Hogeita hamar hilabeteko iraupena du proiektuak, eta hauek dira partaideak: VICOMTech eta Robotiker ikerketa-zeretroak, EHUKo IXA eta Aholab taldeak, eta Elhuyar Fundazioa. Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak interes estrategikoko ikerketalerro izendatu du proiektua, eta Etorke programaren bidez lagunduko du.